

1994ko martxoak 11

227. zenb.

PRESS

# ARRASATE



**Aldaiko  
hilerria  
itxita**

**Intsumisoen  
epaiketak**



# HEZIBIDE

**Matrikulazioa zabalik**

❖ PROIEKTU EUSKALDUNA  
❖ ERREFORMARA EGOKITUA  
❖ TALDE PEDAGOGIKO SENDOR  
ETA ERAGINHORRA

**Izenematea martxoaren 1etik 14ra**



**SAN VIATOR**  
Ikastola  
**6-20 urte**  
Tfnoa: 79 04 11



**SAN FRANTZISKO XABIER**  
Ikastola  
**2-16 urte**  
Tfnoa: 79 26 40



**UMEZAINZA**  
Haur-Eskola  
**0-6 urte**  
Tfnoa: 79 01 02



# Kultur ekintzek aurrera

Oraindik orain, esan daiteke ezkor-tasuna dela nagusi euskaldungo-aren atal handi batean. Oraindik orain, badago zera esaten duenik: "nik egin beharko dut, bestela inork ez du egingo eta", edo, "nik egiten ez badut nork egingo du ba?". Horrelakoak sarritan entzun ditut nigan-dik hurbil, eta ez bakarrik hizkuntzari dagozkion kontuetan, baita edozein kultur ekintzari dagozkionetan ere. Beste askok, berriz, egin nahi dute, baina...ez dute egiten.

Egoera tristea deritzot horri, baldintza eskaxeko eta irtenbiderik gabeko bide bat isladatzen baitute. Topikoetara joaz, erdi hutsik dagoen botila genuke hor, agortzen doan bidea.

Nik neuk ibilbide luzea egin dut botila erdi beteta ikusten ikasi arte. Eta ikusi dut nola joan den aldatzen Arrasateren eta arrasatearron Bizimodua.

DANOK kultur talde aintzindariak ondorengo ugari eta aberatsak utzi ditu. Hor ditugu dantza taldeak, beti berrituz eta dantzarako grina gaztetxo zein nagusiagoei "kutsatuz".

Hor dugu bai-



ta Arrasate Musikal bezalako musika-eskola, musikarako joera herri guztira hedatu duena, musikari eta musikazale ugari plazaratuz eta baita kalitatezko emankizunak antolatuz ere.

Hor ditugu gaiteroak, beraien maila eta jarraitzaileen kopurua areagotuz eta eskola berria sortuz. Hauekin batera, konpartsa paregabea, ikusgarri eta harrigarria bere ekintzetan.

Hor dugu trikitixa eskola, ehun ikasle baino gehiagoz osatua jada eta herri guztia fandango-tan altxatzeko prest.

Hor dugu abesbatza, Arrasateko kantarako zaletasuna batu eta kalitatezko emaitzak lortu dituena.

Hor ditugu alboka ikastaroa, AEDk antolatutako ekintza ugarien zerrenda amaigabea eta ziur aski ahaztuko ditudan beste zenbait ere.

Azpitarragarriak dira elkarlanean sortu diren ekintza bikainak, hots, jaialdi bateratu hungigarriak -Ikastolen 25. urteurrena, HIES Eki-menaren jaialdia-, Santamasetako Txerridantza eta San Juanetako Errementari-dantza. Izango al dugu aurki horrelako ezusteko atsegini-?

Hor ditugu ekimen alaiak bultzatzen dituzten jai-batzorde ezberdinak ere. Eta ezin aipatu gabe utzi, noski, Arrasateko komunikabideak, daudenak eta egongo direnak.

Pertsona konkretu eta talde ezberdinen ilusio eta maitasunak bakarrik sor dezakete horrelako dinamika eraginkorra eta zinez luxuzkoa. Arrasateko botila bizitzara doa, ez heriotzera. Eta DENON lana da botila hori betetzeko ahalegina egitea, herri baten aberastasuna ez baitu bertako egoera ekonomiko ala politikoak soilik adierazten. Badugu baikor izateko arrazoirik. Zain eta mima ditzagun bai herritarrok baita instituzioek ere, gure aberastun hauek bizitzako bidean aurrera egin dezaten.

KARMELE PEREZ

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Inurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Arantzazu



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalarren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du



# Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79  
Kontzezino, 8 79 03 56

**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**mokasin**

**Zapatak eta osagarriak**

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**

**77 08 15**

## Martxoak 8: mugarik ez emakumeentzat

**E**ta berriz ere martxoaren 8a ageri zaigu begien aurrean, lotsarik gabe... zinizmo eta zurikeriaz emakume izate hutsagatik gure bizitzak bortxatzen dituen gizarte honen asignatura pendiete gisa. Mundu guztiko biztanlegoaren %50a baino gehiago gara marginazioa, pobrezia, gizonezkoekiko dependentzia ekonomiko eta afektiboa jasatera kondentuta gaudenak, gizarte patriarkal, sexista eta diskriminatzailean.

Apaingarriak apaingarri, eta espedientea betetzeko balio duten lorpen formalak alhora utziz gero, usadioa, ohiturak eta jarrerak ezberdinak eta diskriminatzaileak dira. Gaur egun ikasgeletara baldintza berberetan sartzen garen arren, heziketa sexista da oraindik. Gainera, lana bilatzeko orduan harlosak baino gehiago pisatzen du emakume izateak. Euskadin 10 emakumetik 7 etxean gaudete, eta beste 3 etatik bat langabezian dago... Emakumeoi eraso egiten digu langabeziak, izkutuko lanak, soldata injustu (%21 gutxiago) eta txarrek.

Egia da antisorgailuek haurdun geratzeko beldurra kendu egin digutena, baina sexu-harremanak gizonezkoaren sexualitatearen ingurukoak izaten dira gehienetan, gure beharrak, erritmoa eta gure desioak

kontutan izan barik. Sexugehiegikeria, bortxaketa, etxeko eta kanpoko erahilketak ere ezin ditugu ahaztu, gure generoa betidanik markatu izan dutenak dira eta. Baina emakumeok jasaten dugun indarkeriarik handiena, gizonezkoekiko menpekotasun ekonomiko eta afektiboa da.

Genero gisa ditugun beharrek, bizitza pribatu eta sozialean autodeterminatze-eraman eraman gaituzte. Ezinbestekoa da gizarteak gure oinarriko eskubideei erantzutea, pertsonak garen aldetik, hainbeste mendentako marginazioarengatik diskriminazio positiboa emanez: lanpostuak; formakuntza profesionala eta errekeruperazio psikologiko eta sexuala, geure burua ezagutzea, gure pertsonalitatea eta autoestima garatuko dituen. Ezinbestekoa da gehiegikeria sexualak zigortuko dituzten legeak ematea. Komunikabideetako mezuak, publizitatearenak, aldatu egin behar dira... horietan ere emakumeok errespeta eta balora gaitzaten.

Ezinbestekoa da lanpostuak, aukerak, baliapideak, etxeko lanak, pertsonen zainketa eta erabakiak hartzea banatu eta konpartitzea. Presazkoa da gizon eta emakume askeen gizarte berdina bat erditzea, denok parte hartu eta elkarrekin determinatu gaitzen.

**EGIZAN**

## Nire herrian geratzen naiz

**N**i euskalduna naiz, eta orain arte Madrilgo Gobernu horrek ez die inolako kasurik egin nere eritziei. Ez da inoiz nitaz gogoratzen zeozer behar dudanean, eta orain, soldaduzkara eraman nahi nau bere interesak babesteko.

Ez dut nahi eta ez dut soldaduzkarik egingo. Ejerzitoak ez zaizkit gustatzen, eta ez dut urte bat galduko ejerzito batean militar edo sasi-demokrata batzuen nahia asetzeko.

Gobernukoek, dagoen konstituzioarekiko ditugun eginbeharrak bete egin behar ditugula diote, baina ni ez nago ados; nik eta nire adinekoek ez genuen konstituzio hori onartu, inposatu egin digute.

Arrasateko herrian injustizia honi hasiera eman zaio, herriko lau gazteren epaiketaz. Baina oraindik bagara 100 bat gazte bidegabekeria hau jasan beharko dugunak.

Hau bezalako injustizia guztien aurka borrokatu egin behar dugu, adibidez, intsumisioen aldeko plataforma berriari lagunduz (gure udaltxeko zinegotzi batzuen jarrera exenplu moduan hartuz).

**AITOR GARAI, 'FRAI'**

## IBARRA Garajea S.L.



Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan  
ASTELEHENETIK OSTRALERA ARTE  
Goizeko 9etatik 1a arte  
TFNOA: 79 19 21



# Intsumisoak epaitzea zer iruditzen zaizu?



**David Hierro**  
**Jubilatua (74 urte)**

Intsumisoak egotea ondo dago, bakoitzak nahi duena erabakitzeko askatasuna izan behar baitu. Bestalde, ez nago intsumisoak epaitzearen alde.



**Cristina Gomez**  
**Ikaslea (22 urte)**

Intsumisioa ondo ikusten dut, derrigorrezko soldaduska ken dezaten presionatu egin behar baita.



**Clemente Delgado**  
**Ikaslea (19 urte)**

Soldaduskara joatea ez litzateke beharrezkoa izan behar, nahi duenak joan behar luke. Ejerzitoa profesionala izango balitz, askoz hobeto.



**Basi Guzman**  
**Etxekoandrea (35 urte)**

Norberak nahi duena erabaki behar du, eta ez da inor ezertara behartu behar. Soldaduska egin nahi ez badute, ez dira epaitu behar.



**Jabier Otxoa**  
**Biajantea**  
**(28 urte)**

Intsumisoak eskubidea du intsumiso izateko. Beraz, epaitu behar badituzte ondo, baina errugabe utziz.



**Pepi Gorosabel**  
**Etxekoandrea (45 urte)**

Indarrak batu egin behar dira, intsumisioaren alde egiteko. Gainera, ez dut uste intsumisoak epaitu behar direnik.



**Anton Olazagoitia**  
**Jubilatua (72 urte)**

Norberak nahi duena egin beharko luke, nahi duenak soldaduskara joan eta nahi ez duenak, ez.




**Edurne Urzelai**  
**Mankomunitateko langilea (28 urte)**

Ez nago soldaduskara joatearen alde, baina egoera hori arautu arte itxaron behar da. Intsumisoak ez daude eroso legeak ez daki zer egin, horregatik, arautu egin behar da.

**Hilbera**  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**OSORIK**  
**PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igoalatorria ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larnialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 ..... 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) ..... 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 79 78 44  
 ..... 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuena egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Eikartea ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Montterongo liburategia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 11**  
 Egunez 22.00ak **arte:** Mozos. Pedro  
 Deunaren  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Larunbata 12**  
 Egunez 22.00ak **arte:** Corcuera. Musakola.  
 Egunez eta gauez: Camacho. Oxirondo.

**Igandea 13**  
 Egunez 22.00ak **arte:** Irizar. Erguin.  
 Egunez eta gauez: Camacho. Oxirondo.

**Astelehena 14**  
 Egunez 22.00ak **arte:** Amezua. Sta.  
 Marina.  
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale.

**Asteartea 15**  
 Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.

**Asteazkena 16**  
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**Osteguna 17**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**11 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Demolition Man". 7etan eta  
 10etan.

**PINTURA ERAKUSKETA**  
 Iñaki Riviereren pintura erakus-  
 keta. Inaugurazioa arratsal-  
 deko 7etan, Harresi aretoan.

**HITZALDIA**  
 "Euskal nazionalismoaren  
 erronkak gaur egun". Hizlari:  
 Carlos Garaikoetxea. Eibar-  
 ko Armeria Eskolako are-  
 toan. Arratsaldeko 8etan.

**ARRASATE MUSIKALEKO EMANALDIA**  
 Piano eta instrumentu bakarlar-  
 rien eskutik. Akademiako  
 Aretoan, arratsaldeko 7etan.

**12 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Demolition Man". 5etan 7.30etan  
 eta 10etan.

**KARTEL ERAKUSKETA**  
 Herriko enparantzan. "Harre-  
 man", Arrasateko Hirugarren  
 Mundu Taldeak antolatuta.

**SINADURA BILKETA**  
 %0,7aren aldeko sinadura bilke-  
 ta. Goizeko 12etatik ordu  
 2etara eta 4etatik 8etara.  
 Portaloian. Harreman, Hiru-  
 garren Mundu Taldeak anto-  
 latuta.

**ERGUIN ESKOLAREN IV. ASTE KULTURALA**  
 Egun guztian zehar ikuskizunak:  
 kirol lehiaketak, bizikletaz  
 zinta lasterketak, gaztelu  
 puzgarriak...Arrasateko Irra-  
 tizale taldeak bere tresneria  
 martxan ipiniko du.

**ARRASATE MUSIKALEKO EMANALDIA**  
 Haizezko instrumentuen taldea-  
 ren eskutik. Akademiako are-  
 toan, eguerdiko 12.30etan.

**DIAPPOSITIBA EMANALDIA**  
 Gaia: Cho-Oyu 93 espedizioa.  
 Hizlari: Naiara Ezeiza. Arra-  
 tsaldeko 7etan, Monterron-  
 go hitzaldi aretoan. AEDko  
 Gazte Mobidiek antolatuta.

**BALLET EMANALDIA**  
 Zaragozako Ballet Konpainiaren  
 emanaldia. Zuzendaria: Cris-  
 tina Miñana. Arratsaldeko  
 7etan, Amaia antzokian.  
 Prezioa 500 PTA, bazkideek  
 dohainik.

**KONTZERTUA**  
 "Necrosis" talde arrasatearrak  
 maketa aurkeztuko du.  
 Prezioa: sarrera eta maketa,  
 400 PTA. Gaztetxean, gaue-  
 ko 10etan.

**13 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Demolition Man". 5etan 7.30etan  
 eta 10etan.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Ibilbidea: Arrasate-Eskoriatza-  
 Arlaban-Landa-Marieta-  
 Ozaeta eta buelta Arrasate-  
 ra.

**SINADURA BILKETA**  
 %0,7aren alde. 12etatik ordu  
 2etara eta 4etatik 8etara.  
 Portaloian. Harremanek anto-  
 latuta.

**%0,7aren ALDEKO ASTEA**

Asteburu honetan hasiko da  
 Arrasateko Hirugarren Mundu  
 Taldea "Harreman", sinadurak  
 biltzen udaletxeari aurrekon-  
 tuaren 0,7a Hirugarren  
 Mundura zuzen dezala  
 eskatzeko. Gainera asteartean  
 hitzaldia izango da eta  
 ostegunean pelikula. Datorren  
 astean ere beste ekintza  
 batzuk izango dira.

**SALSA IKASTAROA**

Deba Garaiko Mankomuni-  
 tatea Salsa ikastaroa antola-  
 tu nahian dabil. Ikastaroa,  
 maiatzaren 9tik 13ra  
 bitartean emango da.  
 Prezioa: kirol etxeko  
 bazkide direnek 2.000 PTA,  
 bazkide ez direnek 3.000  
 PTA. Izenematea, Aretxaba-  
 letako kultur-etxean.  
 Informazio gehiago 790105  
 telefonoan.





**14** ASTELEHENA**ZINEA**

"Demolition Man". 7etan eta 9.30etan.

**ODOLEMATEA**


Arratsaldeko 4.30etatik 8etara, Anbulategian.

**EUSKAL DANTZA IKASTAROA**

Martxoaren 14tik apirilaren 11ra arte. Astelehenero, arratsaldeko 8etatik 9.30etara. Loramendi Kultur Elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta. Matrikula 500 PTA. Informazioa eta izen ematea Loramendi K.Ean martxoaren 14a baino lehen, tlf: 770970.

**DEMOLITION MAN**

Fotogramas aldizkariko zine kritikari batek zera idatzi zuen filme honen gainean: "Aurten aurkeztu den filme dibertigarri eta onenarikoa da. Zineak, biolentzia, akzioa, zikintasuna, kontsumismoa eta dibertsioa ere eskatzen duela erakusten du Demolition Man pelikulak."

**15** ASTEARTEA**ZINEA**

"Demolition Man". 7etan eta 9.30etan.

**ODOLEMATEA**

Arratsaldeko 4.30etatik 8etara, Anbulategian.

**HITZALDIA ETA BIDEO EMANALDIA**

Gaia: Zergatik %0,7a? Hizlariak: Maite Orue, Gasteizko Intermoneko partaidea eta Jose Mari Sarasua, Aretxabale-tako 3. Mundu Taldeko zuzendaria. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Harreman, Arrasateko Hirugarren Mundu taldeak antolatuta.

**LAN EGITEN DUTENENTZAT IKASTAROAK**

CC.OO.ek antolatuta. Hasiera martxoaren 15ean. Arrasaten. Arratsaldez eta gauez. Gaiak: nominak, kontabilitatea.... Ikastaroa dohainik izango da. Informazio gehiago nahi baduzu, degin 795260 telefonora.

**16** ASTEAZKENA**ODOLEMATEA**

Arratsaldeko 4.30etatik 8etara, Anbulategian.

**MAGIA ERAKUSTALDIA ETA HITZALDIA**

Hizlariak: Itziar Arratibel (Tolosako Magia Jaialdiaren antolatzailea) eta Alberto Gonzalez (Gipuzkoako Ilusionista elkarte kidea). Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. AEDK antolatuta.

**17** OSTEGUNA**ZINEA**

"Café Irlandes". 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**


"Emakumea heldutasunaren aurrean" hitzaldi zikloaren hasiera. Arratsaldeko 4etatik 6.30etara. Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan. Santa Teresa, 12.

**BIDEO EMANALDIA**

Jim Sheridanen: "El Prado". Arratsaldeko 6.30etan, Monterron Kultur Etxean. Udal Liburutegiak antolatuta.

**PELIKULA**

"La Deuda Interna", 1988an Berlinen "Oso de Plata" izendatu zuten. Amaia antzokian, gaueko 9etan. Prezioa 200 PTA. Harreman, Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta.

**"LANA BILATZEKO TEKNIKAK" IKASTAROA**

Betebeharrak: emakumea izatea, 18tik 45 urte bitartekoak eta enplegu eskatzailearen txartela edukitzea. Astearte eta ostegunetan, 3.30etatik 6etara. Hasiera martxoaren 17an. Ordu kopurua: 40 ordu. Plaza mugatuak. Argibideak eta izen ematea, famili eta gizarte heziketarako zentruan. Tlf 790459.



nak:

- Bazkide guztiak erreziklaia eta garapen pertsonale-rako eta enpresaren gestio eta kontrolerako hezitzea.
- Eginkizunak aberastea, lanei edukin gehiago emanez.
- Helburu negoziatuaren bidez lana garatzea, produkzio eta antolaketa arloak bezala, Egutegi Mugikorra, ordu estrak etab ikutuko dituelarik.
- Inbertsio Ergonimiko eta Laneko Osasun programak burutzea.

Laburtuz, langileari bere ingurunea menderatzen la-gunduko dieten aldaketa teknikoak bultzatzea helburu izan-go duten ekintzak garatzea, enpresaren demokratizazio printzipioa gauzatzeko beharrezko baldintza baita hori”.

**Joseba Ugaldek**

**lanbide**

“(Plenoan) esan zen guztiaren artean, hauxe aukeratzen dugu: ‘guztiok ez dugu errespeto berbera sentitzen gure hildakoekiko’. Eta horrek oso gutxi inporta izan zien Herri Batasuna, Partido Socialista eta Euskal Ezkerrari. (...)”

Kanposantu bat porruak eta azak hazten diren sail batekin konparatetik, Jainkoak aparta! Baina bat harriritu geratu zen plenoan Aitor Orobengoak esan zuenean, bere amamak ere Garagartzako baserrian zuen ortua utzi egin behar izan zuela herriaren ondasun publiko bezala, bertan rugby zelaia egin zedin. Euskal Ezkerrako ordezkariak Aldaiko kanposantuan lurperatze gehiago ez egitearen alde bere amamari kirolaren mesedetan egin zioten faenarekin akordatuz bozkatu bazuen... konponduta gaude Arrasaten ditugun politikari batzuekin.

Besterik da sozialistek erritmoa aldatu izana (Arrasateko Udalean behintzat) eta dagoeneko ez dira euren funda-tzailearekin, Pablo Iglesiasekin akordatzen”.

**Txema Urcelayk** 94-3-6ko

**EL DIARIO VASCO**

## **Zein helburu lortu nahi duzue %0,7aren aldeko asteaz?**

**A**stebukaera honetan %0,7a-ren aldeko asteari hasiera emango dio “Harreman”, Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak. Helburu nagusia iritzi publikoa eta udaletxea sentiberatzea da. Hau da, udaletxeari konkretuki eskatu nahi diogu aurrekontua-ren %0,7a Hirugarren Munduari laguntzeko bidera dezala.

1972. urtean ONU erakun-deak, Espainiako gobernuaren oneritiaz, herri garatuek azpigaratuei produktu gordinaren %0,7a ematea onartu zuen. Baina era-baki hori, orain arte behintzat, nazio eta udaletxe bakar batzuek

bete dute. Euskadin adibidez Gasteiz, Ordizia eta beste udaletxe bakar batzuk ematen dute aurrekontuaren kopuru hori. Beraz, aste-bukaeran hasi eta astean zehar egingo dugun sinadura bilketaz, Arrasateko udaletxeari ere eskari hori aurkeztuko diogu. Kontutan izanik Arrasateko Udalarentzat honek, pertsonako eta urteko, 320 PTA bakarrik esanahi duela.. Gainera, dirua proiektu konkretuetara zuzen dadin nahi dugu. Ez da kontua gosea dagoela eta ez dakit zenbat elikagai bidaltzea. Hobe da UNAI bezelako proiektuei dirua ematea, hainbat arazo era honetan soilik konponduko baitira eta gainera, lanpostuak sortzen laguntzeaz gain, herri horretako garape-na ere bultzatuko da.

Egunez egun, herri garatu eta azpigaratuaren arteko desberdinta-suna handituz doa eta bitartean, Hirugarren Munduko herriak larriago daude. Gu, herrialde aberatsetan bizi garenok, honen erantzuleak gara, beraz, arazo honi erantzuna ematen lagundu behar dugu.



**Itziar Etxebarria**  
“Harreman” Arrasateko  
Hirugarren Mundu Taldeko  
idazkaria

## **Miren Garai Estetika Zentrua**



**Gure Espezialitateak:**

- **Loditasuna:** Goserik pasatu barik.
- **Tratamendu Organuterapikoa**
- **Zelulitisa:** Liposukzio eta lipoeskultura bidez.
- **Barizeak:** Infiltrazioa eta Zirugia
- **Zirugia Estetikoa**

Zarugalde 23-2. ezk. 79 96 90

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**Plenoko gaiak**

Joan den ostiraleko plenoan, eztabaidagarri izan ziren hilerriko eta intsumisoen gaiez aparte, beste puntu batzuk ere onartu ziren. Horien artean, aipagarria da Uharkapeko obra egiteko behar diren banku-abalak baimendu zituela korporazioak. Bestetik, hirigintzako egitasmo orokor berria egiteko beharrezkoa den urrats garrantzitsu bat ere onartu zen plenoan: zoru urbanizazinerako arau osagarrien hasierako onespina. Bi puntu hauek aho batez onartu zituzten zinegotziek, batere eztabaidda barik.

**Plenoko akta eta grabazioa**

Bitxikeria gisa, gehitu dezagun ostiraleko pleno garrantzitsuko aktak egiteko erabiltzen den kasetak ez zuela funtzionatu, ez baitzen ezer grabatuta geratu. Beraz, pleno hartako interbentzio gehien hitz testualak galdu egin dira aktarako, eta udal idazkariak buruz gogoratutako eta kazetari batzuen bidez gordetako ikuspuntuak jaso behar izan



**Txomin Iturberi omenaldia**

Herri Batasunak Txomin Iturbe omendu zuen joan den larunbatean, Amaia antzokian egindako ekitaldi batean. ETako kide izandako Arrasateko semearen heriotza gogoratuz, Xabier Zubizarreta alkateak ireki zuen omenaldia. Ekitaldiko atal politikoa Floren Aoizen hitzaldi batek bete zuen. Euskal Herriaren egoeraren irtenbidea negoziatuztik etorriko dela adierazi zuen Aoizek. Bertsolariek, tritikilariek eta Anje Duhalde kantariak ere hartu zuten parte omenaldian.

zituena akta erredaktatzeko. Lehen aldia ei da halako eragozpenik gertatu izan dena.

**Baserrietako lapurra**

Euskaraz jakiteaz baliatuz, baserriarren konfidantza lortu eta baserrietan ostu egiten zuen lapur bat atxilotu du Er-tzaintzak. Beasaingo 30 urteko gizon bat da, eta

Deba Garaiko baserriren batean ere egin ei du lapurretan. Kutxa zaharrak eta antigoaleko objeto baliotsuak engainuz eroaten zituena baserrietatik lapur honek, filme batean erabili behar ei zituztela eta.

**Lagun Aroko mutualisten biltzarra**

Lagun Aroko mutualis-tek asanblada izan zuten

larunbatean Arrasaten, eta 784 lagun bildu ziren bertan. Bezperan, prentsaurrekoa eskaini zuen Lagun Arok Bilbon. Larunbateko biltzarrean 1993ko ekitaldiko balantzea aztertu eta ontzat eman zuten. Balantze hori, Lagun Aroren esanetan, baikorra izan zen, nahiz eta egoera industrial kaskarraren eragina somatu egin zen. Biltzarrean, bestetik, 94rako aurrikusitako planak aztertu ziren, eta plan horietan azaltzen ziren bi proposamen atzera bota egin zituzten mutualistek. Hain zuzen ere, botiken erosketan laguntza %70etik %60ra jaistea, eta langabezi laguntza gutxitzeko proposamenak izan ziren onartzeke geratu zirenak.

JAIOZAK
• Borja Hernando Roman, martxoaren 3an
EZKONTZAK
• Agostino Dasilva Loureiro eta Alicia Rodriguez Vara, martxoaren 5ean elizaz.
HILDAKOAK
• Elisea Gonzalez Isar. Martxoaren 1ean. 87b urte.
• Cruz Etxebarria Altuna. 4ean. 79 urte.
• Antolin Valentin Gancedo. 4ean. 90 urte.
• Luis Otegi Berasategi. 7an. 69 urte.



**Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.**

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

*Espezialitate guztiak*

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztandua, etab...

Zure hartz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

**BERGARAKO KLINIKA**

Simón Arrieta, 3-2 B  
Tf. (943) 76 38 54

**ARRASATEKO KLINIKA**

Iturriotz, 7 behea  
Tf. (943) 79 73 88

**ZUMARRAGAKO KLINIKA**

Soraluze, 1-1 ezk.  
Tf. (943) 72 46 47





ASUN ITURBE \*

# Emakumeak lan eta lan eta lanik ez

**Historikoki** emakumeek lan egin dute —eta oso gogor— barazkigintzan, industrian, zerbitzuetan... eta etxeko-lanetan, bai janariak ekoizten eta kontserbatzen zein umeak, aiton-amonak zein ez-gaituak zaintzen ... itzelezko eta ixilezko emakume-lanok egiten, inoiz ez zizkietelarik —ekonomikoki zein sozialki— behar bezain errekonozitu, lanok betidanik “dohaine-koak” izan baitira.

Oraindik gaur —eta lanaren banaketa sexualari esker—, emakumeak ezin dira biziaren birsorkuntzari hain lotuak dohazkion lan horretatik askatu: etxeko lana, umeen ardura, ez-gaituen zaintza eta etxeko antolaketaren ardura.

Azken urteetan eman den

fenomenoak, emakumea “etxetik kanpoko” lan munduan uztartzeak ez du eragin gehiegirik izan gizonen portaeratan, hauek ez baitute —oraindik gaur!— etxeko lanetan zein pertsona zainketan dagokien neurrian esku hartzen.

Guzti honi gehitzen badiogu emakumeen eskaint-

.....  
***Itzelezko eta isilezko emakume-lanok egiten, inoiz ez zizkietelarik behar bezain errekonozitu, lanok betidanik “dohaine-koak” izan baitira***

zen zaizkien lanak kaxkarrak eta kualifikazio gutxienekoak direla: horra hor, kuadroa! Bestalde, ezin da ahaztu lan-munduan emakumeen presentzia gehien-gokoa dela honako arlotan: irakaskuntza, osasun-arloa... beraz, eta hein handi batean, emakumeen rol tradizionalak.

Garrantzizkoa deritzogu azpimarratzea, egun emakumearen eskatasun ekonomikoak duen garrantziaz, zein honek eskubide osozko langile lez lan-munduan uztartzeko beharraz, are gehiago krisi sozial eta ekonomiko garaioan, non birrageritzen diren mamurik kontserbadoreenak: familiaren zein emakumearen rol tradizionalen goraiapamena...

EMAKUMEEN ASANBLADA

## USTEAK USTE

### EREDUAK

Zalantzarik gabe gero eta gehiago dira D ereduak, hau da, euskara hutsean matrikulatzen diren umeak, gero eta gutxiago izanik A ereduak, hau da, erdara hutsean, matrikulatzen direnak. Aukera gurasoena izanik, daude ereduak artean: A, B eta D, azken biak gorakada handiena dutenak, A ereduaren kaltean. Badirudi, arlo horretan behintzat euskararen aldeko joera nabarmena dagoela, aurrera pausoak eman direla.

Gure Hezkuntza Sailburua ere horretaz ohartu dela dirudi, baina aukeratzeko eskubidearen aurka joatea gogorregia izango zelarik bere izpiritu demokratikoarentzat, ereduak eurak berrikustea komeniko litzatekeela adierazi du, hau da, A eta D ereduak, eredu hauetan matrikulatzen diren umeak ez ote dute bigarren hizkuntza behar den bezala menperatzen. Baina ohar gaitzen A eta D ereduak erakaztea ez dela erreala. Alde batetik D ereduak matrikulatzen diren umeak, nahiz eta gaztelera asignatura bezala besterik izan ez, edo familian edo kalean edo telebistan, hau da, euren inguruan erdara entzuten dutelako edo, esan genezake gaztelera ulertzeko eta neurri batean hitzegiteko ere gai izaten direla, ez ordea, alderantziz. Hau da, A ereduak ikasten dutenek, gehien batean eskolatik kanpoko giroa eralduna izaten dute, eta eskolan euskara asignatura bezala bakarrik ikasirik, ez dira inoiz hain ulertu eta hitzegiteko moduan ikastera heltzen. Garbi dago bada, zein aterako litzatekeen kaltetuta A eta D ereduak berrikusi behar direla aipatzen denean. Ez dut uste oso oker ibiliko nintzatekeenik euskararen aurkako erasotzat hartuko banu. Hemendik aurrera bada, irakaskuntza munduko langileok, gurasook eta euskaldunok, orokorrean argi ibili beharra izango dugu. Hor dugu abixua. Aurre egiten jakingo ote dugu?


AMAI JAUREGI-ARRABURU

.....  
**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**  
 .....

**BAZAR**  
 TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Elektroinjekzio  
 Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
 ARRASATE




# Udalak behin-betirako itxi du Aldaiko hilerria

Aldaiko kanposantu zaharrean ez dute jende gehiago ehortziko panteoietan. Joan den ostiraleko udalbatzak erabaki hori hartu zuen, publiko eta zinegotzien arteko eztabaida bizi baten ondoren. HB, PSE-EE eta EUEren botoekin erabaki zen Aldai ixtea. EAJk beste proposamen bat egin zuen, panteoi-jabeekin beste lau hilabetez negoziatzeko, baina horrek ez zuen aurrera egin. EAk ere Aldai oraingoz ez ixtearen alde egin zuen.

Azken bi hilabeteetan, panteoietan besterik ez dute jendea ehortzi Aldain; gainerakoak San Kristobalgo hilerri berriko nitxoetara joan dira. Udalak luzapen hori eskaini zien panteoi-jabeei, negoziatzeko eta irtenbideren bat lortzeko, baina elkarte batean bildutako 125 familiek ez zuten Aldain enterratzen segitzeko beste aukerarik onartzen.

Plenoan familia hauetako ordezkari ugari izan ziren, gehienak edadeko jendea. Bozketaren emaitza protesta zaratatsu batekin hartu zuten ikusleek. Hitza hartu zutenek motibo sentimentalak aipatu zituzten batipat, ohi-turari eutsi nahi ziotela, eta beren hurbilenekoen ondoan izan atsedena. Bestetik, panteoien jabe diren heinean, propietario gisa duten eskubidea ere aldarrikatu zuten. Kanposantuen eta panteoien balio monumental eta historikoa ere aipatu zuten; eta erduzkotzat jarri zituzten beste hainbat herri-tako hilerri zaharrak, aldi berean parke eta kanposantu direnak.



Hamar urtez, bere hartan zainduko dute orain Aldaiko hilerria.

Ixtearen alde hitz egin zuten zinegotziek herriaren gehiengoaren interesak jarri zituzten familia konkretu hauen gainetik. Udalaren ustez, ez dago bi kanposantu aldi berean gordetzerik. Bestetik, alkateak gezurtatu egin zuen Aldain etxeak egingo direnik, familietako batzuk salatu zutena ukatuz. Orain, 10 urteko epe batez, kanposantua bere hartan zainduko du udalak, eta irekita egongo da bisitentzat. Ondoren, egungo arau subsidioarioen argitan, berdegunea izango da, eta horrek ez du esan nahi panteoiak bota egingo dituztenik.

## Turismoa Deba Garaian

Deba Garaian turismoa sustatzeko 500 orri eta hiru tomoko lan bat bildu du Mankomunitateak, Lourdes Romanoren ardurapean. Plan horren barruan anagrama bat ere diseinatu dute, baita lau hizkuntzatan erredaktatutako gida bat kaleratu ere. Egindako azterketan, eskualdeak dituen baliabideak, eta faltan botatzen direnak aipatzen dira. Behar orokorrez gain, herriz-herriko egoera ere aztertu da ikerketa honetarako. Deba Garaiak potentzial turistikoa handia izan dezakeela uste du Mankomunitateak, planaren aurkezpenean azaldu zuten.

## Ikerlan eta espaziorako ikerketa

NASAK uztailen egin behar duen Columbia espazio-untziaren hegaldi baterako SBS proiektuko aparailu bat egin ondoren, Ikerlan espaziorako beste ikerkuntza proiektu batean murgildu da: i-ARES du izena, eta Marten ibiltzeko egingo den ibilgailu bat egitea du helburu, eta Ikerlanen lana makina horren beso robotiko bat egitea izango da. Aste honetan bertan, i-ARES-en laguntzen duten Hungaria, Frantzia eta Errusiako zientzilari eta ordezkariak egon dira Arrasaten Ikerlan ikusten.

*ESLU*  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE







Aurkitutako hezurak XVI-XVIII. mendeetakoak dira, eta Arantzadik eroan ditu oraingoz ikertzera.

## Aurkikuntza interesgarriak San Juan elizan

Arrasateko San Juan elizako berritze lanak martxa betean doaz. Teilatu guztiak jasota daude, konpontzeko eta elizaren jatorrizko itxura berreskuratzeko. XIV. mendeko gotikoko artelan ederra da San Juan eliza, Arrasateko eraikuntzarik zaharrena.

Obrak hasi zirenetik, aurkikuntza interesgarriak egin dira lanotan. Ikusgarriena eliza azpitik atera diren milaka hezurak dira. XVI. eta XVIII. mendeen artean ehortzitako arrasatearren hondakinak dira hezur hauek, eta hainbat hondarren artean azaldu dira. Garai haietan, kanposantutzat erabiltzen zen elizaren behea, hainbat herritan

praktikatzen zen ohiturari jarraituz.

Hezurak agertu ahala, parrokiak erretiratu egin ditu, Arantzadi elkarteak iker dituzan. Ikerketa horretan, datu antropologikoak eta heriotzen zergatiak aztertuko dituzte, eta ondoren hezurak elizara itzuliko dira: hezurtegi batean jarriko dituzte, plaka oroigarri batekin, hondakinei atsedean duin bat emateko.

Ez dira hezurak izan aurkikuntza bakarra. Joan den ostiralean, Jesukristoren harrizko irudi bat ere agertu zen obretan. Ura kanalizatzeko jatorrizko elementuak ere azaleratu dira.

### Martxoak 8

Asteazkenean, martxoak 8, emakumearen eguna izan zela eta, manifestazioa izan zen Arrasaten, eta 300 bat lagun bildu ziren bertan. Manifestazioa baino lehenago, kontzentrazioa egon zen Portaloian, eta bertan poema bat irakurri zen, eta Emakumeen Asanbladak eta Egizanek komunikatu bana irakurri zuten. Beste ekitaldi batzuk ere egin dira astean zehar, mahainguru, hitzaldi edo tertuliak, adibidez, eta larunbatean Arrasateko emakumeen afaria dago Kataiden.

### Udal aurrekontuak

Aste honetan ez da izan Gobernu Batzordearen bilerarik, baina aldiz, udal batzordeak 1994erako aurrekontuak eztabaidatzeko bildu ziren astelehenean. Diputazioak bere kontuak onartu zituen, apartazio foralaren berri badaki jada udalak, eta horren arabera orekatu dira diru-kontuak. Kontentzioko aurrekontuak izango dira, hein handi batean apartazio foral horren murrizketagatik.



## URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
ARRASATE





Ostegunetan mobilizazioak egiten dituzte Cerrajerako eta Transformadoseko langileek.

## UCEMek Cerrajera itxi egin dezakeela jakinarazi du

Transformados Metalicos eta UCEM Cerrajera enpresetako langileek mobilizazioi ekin diete berriro, UCEM Korporazioaren murrizketa planak ezagutu eta gero.

UCEM Korporazioaren asmoa hauxe litzateke: lantegi biak gaur egunean dauden tokitik trasladatzea zehaztu bako pabilioi industrialen batera, eta terrenoen birkalkifikazio eta salmentarekin finantzatzea kokapen berri hori, baina langile gutxiagorekin. Cerrajerako plantila 85 langiletik 49ra jaitziko litzateke, eta Transformadoseko plantila 94tik 42ra.

Langileak (sindikatu guztiak bat datoz

honetan) ez daude ados honekin: lanpostu guztiei eustea eskatzen dute. Horretarako, udalaren bidez, LKS enpresari bideragarritasun plan bat eskatu diote, eta plan hori Jaurlearitzako industria saileko arduradunekin eztabaidatu dute, ekainaren 1a baino lehenago akordiorik ez badago, bi lantegiak itxiko dituztela iragarri baitute.

Sindikatuak agiri bat ere kaleratu dute egoera salatuz, eta bertan diotenez, "UCEM Korporazioaren ardura bakarra Arrasatetik diru gehiago nola eroan da". Azken asteetan, ostegunero biltzen dira langileak Cerrajerako atean, egoeragatik protesta egiteko.

### Santamainakoak Legargaingo etxeen aurka

Santamaina auzoko juntak Legargaingo urbanizazio proiektua kritikatu egin du idazki baten bitartez. Inguru horretan, 71 etxebizitza egin beharrean, berdegunea gertatzea eskatzen dute Santamainakoek. Juntak "eztabaida publikoa" eskatzen du, herritarrek proiektu hauen berri alde aurretik detaile osoz jakin dezaten. Legargaingo obrek polemika piztu zuten otsaileko udalbatzan, udalak onartu egin zituenean, Legarreko etxeetako bizilagunen protesten artean.

### Multimedia proiektuak

Multimedia proiektuak garatzeko beka sistema bat jarriko du martxan aurki Deba Garaiko Mankomunitateak, Eskualderako Garapen Agentziaren bitartez. Irudi, soinu eta datu informatikoak medio bakarrean erabiltzeko sistemak garatuko dituzte bekadunek, enpresa jakin batzuetarako lan konkretuak eginez.

## Erakustaldi eta hitzaldia

# MAGIA?

## HIZLARIAK:

- Itziar Arratibel (Tolosako Magia Jaialdiaren antolzailea)
- Alberto Gonzalez (Gipuzkoako Ilusionista Elkarteko kidea)

Martxoak 16, asteazkena  
Monterron Kultur etxean  
Arratsaldeko 7etan



ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN





Gizon guzti hauek, 46. urtean kintoak izan zirenak dira. Joan zen larunbatean bildu ziren, aspaldiko garaiak gogoratu eta egunpasa egiteko. Eguerdian meza izan zuten Frantziskotarren elizan eta ondoren bazkaria, Musakolako Hostalean.

Donostian, ia ia gruak kotxea eraman zion **Jon Gomez "Bodegas"** intsumisoari. Itxura denez, Jonek, epaiketak gutxiago iraungo zuela uste zuen. Autoari behintzat, aparkatuta egoteko denbora pasatu egin zitzaion. Grua bertan zela Jon azaldu zen eta Donostiara zertan joan zen esan ondoren, autoa eman ziozte. Gruadunek behintzat sentitzen dute intsumisoenganako errukirik.



40ren bat urtetan Maala kalean egon ondoren, argazkian ageri den erramu zahar eder hau Garagarzako biberoan landatu zuten. Arbola, Maala kalean errotonda berria egin behar dutelako aldatu dute lekuz. Oso-osorik, sustar eta guzti eraman behar zela eta, lurretik ateratzeko kontu handiz ibili ziren langileak.



**Izugarrizko giroa izan zen Andaluziaren Egunean eta kiroldegia go-raino bete zen. Afalaorduan, adibidez, 300 pertsona bildu ziren. Nola ez, dantza sevillarrak protagonista izan ziren. Sevillanen jaialdian, 2 urteko haur txikiek zein 50 urteko parte hartzaileek egin zuten dantzan.**

**lurrindegia perfumeria**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

**ZARRAOA**  
**EL ARCA DE NOE**

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**"PAL"**

**burdindegia, brikolage eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte eta ostiral**  
**5etatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**






**Jon Ander Juldain** eta **Jose Arregi** arrasatearrak Sevillara joan ziren igandean, Taugres eta Barçaren aurkako partidua ikustera. Ez pentsa Real Madrid

zaleak direnik, biak Taugresko bazkideak dira. Argazkia ateratzeko bakarrik kendu zizkieten zaletu batzuei Real Madrileko bufanda horiek.

Azken egunotan, dirua erraz irabazi nahi duen askotxo dabil Arrasaten. Joan zen astean, iruzurgile batek besteen dirua jasotzeko, kutxazain automatikoan ezarri zuen sistemaren barri izan genuen. Aste honetan, 10.000ko billete faltsuak daudela jakin dugu. Imaginazioa behintzat ez da falta.



## IZEN PROPIOAK

● **Jose Mari Velez de Mendizabal**, 44 urte, Eusko Ikaskuntzako Idazkari Gestiogilea izango da aurrerantzean. Jose Mari Arrasaten bizi da, Donostian enpresa zientziak ikasi zituen eta Bilbon ekonomia. 19 urtetan Union Cerrajeran lan egin du eta azken 8 urteotan bertako zuzendari nagusia izan da. ATBko "Tertulixan" saioko partaidea da.

● **Juan Mari Uzkudun**, 49 urte, Gipuzkoako urteko enpresari izendatu dute. Juan Mari Arrasaten bizi da eta Aretxabaletako Copreci kooperatibako gerentea da. Ikasketaz injineru industrial da.

● **Mikel Arana**, 28 urte, Besaideko lehendakaria izango da aurrerantzean. Mikel Arrasaten bizi da eta Nekazal Injiniari Teknikoa da. Bergarako Nekazal Etxean egiten du lan.

## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak


Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

## Mendi taberna


MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54





# LORAMENDI KIROLAK





**ZAPATILA BERRIENAK ZURE ZAIN DAUZKAGU**

# LORAMENDIN

## MARKA GUZTIAK

ADIDAS, REEBOK,  
AVIA, NIKE,  
ELLESE, KARHU,  
MITO, PRO-TOUGH



# elkarri



## ...Oraintxe dugu aukera!

Eskutitz hau sinatzen dugunok bakea nahi dugu gure Herriarentzat. Horretan denok ados, Sinestuta gaude, gainera, uzta jasoko bada, aurretik ereina behar duela. Hor ere ados.

Datorren martxoaren 12an eta «elkarizketa eta distentsioa ...oraintxe dugu aukera» lemapean manifestaldia ezango da Bilbon, Elkarri mogimendu sozialak deituta. Guztiz beharrezkoa jotzen dugu kontrako jarreraren arteko komunikazioari zubiak jartzea eta ELKARRIZKETA eta DISTENTSIONA bultzatzea: ez

bakarrik ETA eta Gobernuaren artekoa; baita gizarteko agente polarizatu guztien artekoa ere.

Elkarrik deitu, bai, baina geure izen propioan agertzen gara hemen; siglen mobilizazioa izan barik, gizartearena izan dadin. Gizarteak onartuta baitauka gatazkak elkarriketaren bidez konpontzen direla eta babestu egiten du honako ideia hau, Ziur gaude.

Asmo hauek eraginda, gurekin bat egiteko gonbitea luzatzen dizugu, adiskide, historikoa izan daitekeen mementu hau zure ekarpenaz ere eraiki dadin.



Felix Iñurrategi, Alberto Iñurrategi, Joxe Ramon Zubizarreta, Andoni Villar, Jon Arregi, Iñaki Mendiguren, Mikel Irizar, Ignazio Lakuntza, Nerea Alzola, Amaia Jauregi, Iñigo Txintxurreta, Jesus Mari Elkorro, Jon Andueza, Juan Ramon Garai, Jabier Markos, Iñaki Bordes, Jon Sarasua, Karmelo Uribarren, Arantzazu Loidi, Juan Luis Arejolaleiba, Elena Errasti, Pili Otxoa, Gema Zubizarreta, Mikel Lezamiz, Joseba Ugalde, Antton Mendizabal, Patxi Goikolea, J. R. Agirreurreta, Esther Merino, Jose Manuel Corcuera, Koldo Rodriguez, Jose Ramon Elorza, Jesus Garmendia, Blanka Jauregi, Xabi Torres



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



## Parekotasuna nagusi

Bigarren faseko lehen jardunaldian ikusitakoagatik, taldeen artean nolabaiteko parekotasuna igertzen dela esan liteke. Bereziki argi geratu da parekotasun hori A taldean, bertan faborito izan behar ziren bi taldek galdu ostean. Hain zuzen ere, Los Heredia eta Nabarros taldeen derrotak izan litezke bigarren jardunaldi

honetako daturik adierazgarriena. Gainerako faboritoak hobetoxeago ibili dira, baina estutasunak ere igaro dituzte. Zulusek estu ta larri irabazi zion Sokoakoak-i, adibidez. Edozein modutan, goiz samar da oraindik pronostikoak egiteko: fasea hasi besteri ez da egin eta sei partidu falta dira.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

**Felipe  
Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



# Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
REVOLUTION ROCK	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
ARLUTZ	1	1	0	0	3	2	<b>2</b>
PEPELUS	1	1	0	0	3	2	<b>2</b>
ZOTZ	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
POTROAK LORATEGI	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
FRANCISCANERR	1	0	0	1	2	3	<b>0</b>
NABARROS	1	0	0	1	2	3	<b>0</b>
LOS HEREDIA	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	1	1	0	0	7	2	<b>2</b>
BUKANAK	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
ZULUS	1	1	0	0	3	2	<b>2</b>
MIKELOS	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
UGLYS TXINATO	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
SOKOAKOAK	1	0	0	1	2	3	<b>0</b>
JEY JULIWER	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>
ANBOTOSTE KT	1	0	0	1	2	7	<b>0</b>

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	1	1	0	0	9	2	<b>2</b>
IRATI STS	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
ARGI IBILI	1	1	0	0	8	4	<b>2</b>
MOTZ	1	1	0	0	5	3	<b>2</b>
KAKAJAURI	1	0	0	1	3	5	<b>0</b>
ARR. KIROLAK	1	0	0	1	4	8	<b>0</b>
TOVARITX	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>
TRONKOTEAK	1	0	0	1	2	9	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
DANOK LAGUN	1	1	0	0	4	2	<b>2</b>
CARBUROS	1	1	0	0	2	1	<b>2</b>
TRIKITI	1	1	0	0	8	5	<b>2</b>
ZULOAK	1	1	0	0	4	3	<b>2</b>
AC SURCOS	1	0	0	1	3	4	<b>0</b>
ARR. KRISTALDEGIA	1	0	0	1	5	8	<b>0</b>
LEINTZ GARAGAR.	1	0	0	1	1	2	<b>0</b>
TUTTIFRUTI	1	0	0	1	2	4	<b>0</b>

# Uribe auzoa Txapelketa

## A taldea

Corinto Taberna  
Ola Tailerrak  
Semen Up  
Trotabares BC  
Borrockn Roll  
LGDT  
Kabiru  
No Comment  
Lo + X  
Elisabeth  
Altza Porru

## B taldea

Berango Sukaldeak  
Atxanta ke te merece  
Solano 7 Mares  
Bodisca  
Sorgol  
Ganbela  
Ke Oxtias  
Yomai  
Nuevo Taberna  
Bayern Lenitz  
Lokis

## D taldea

Lautherbrunnen  
Estrella Floja  
Etxe Mobiliario  
FC Equus BTR  
Ezkiñako Hontzak  
Top Hits  
Belo eta Txapi  
Los Insociables  
Mobiliario Arenaza  
Stockers  
Hirei

## E taldea

Jo Ta Akabau  
Fancy Bois  
Kirten Tropel  
Los Dimy  
Los Garimbas  
Los Dalton  
Beti Gazte  
BorrockRoll Promesas  
Excavaciones Lete  
Txeyenex  
Auf dem Koffer

Iaz 12 taldek bakarrik hartu zuten parte txapelketa honetan, baina aurten dispartatu egin da izen-ematea: 44 talde eta 500 jokalaria baino gehiago. Asteburu honetan hasiko dira jokatzeko, eta emaitzen berri emango dizuegu guk hemendik.

## Monte taberna

Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56



## ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa berria:  
Kanpatorpea, 2  
(Parrokia ondoan)  
ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



## GORKA

ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78



**MIKEL ELORZA ETXEBARRIA**  
25. 452 zenbakiadun Aseguru Artekarria

Boulevard, 11 5<sup>a</sup>-A  
Tfnoa: 43 04 14  
Fax: 43 11 01  
20.003 DONOSTIA

Arrisku garentea  
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea  
Tfnoa-Fax: 77 13 09  
20.500 ARRASATE

**Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!**

## RUTH GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta



**BELARRIRA**



◆ **Uribe Auzoa.** Asteburu honetan hasten da Uribe Auzoko txapelketa, eta gehigarri honetan emango dugu horren berri. Aurten, iaz baino askoz talde gehiagok eman dute izena. Izan ere, iaz, lehen urtea izanik, "kupo" bat jarri zuten Uribeko antolatzaileek, baina aurten izen-ematea librea izan da.

◆ **Arbitro finkoak.** Lehen fasean taldeek jartzen zituzten arbitroak, bakoitzari egokitzen zitzaionean; baina bigarren fasean, arbitro finko batzuk daude, eta gainerakoak txapelketako antolakuntzako mutilak dira.

◆ **Lau 'fantastikoak'.** Bigarren faseko arbitro finko hauek, jubenetako eta kadeteetako futbolmailetan esperientzia daukatenak dira, eta aurten lau izango dira: Aizkora, Nicolas, Perez eta Canacho. Nolanahi ere, asteburu honetan, arbitroek konpromezuak dauzkate eta antolakuntzako gehiagok epaituko dituzte partiduak.

**Bigarren fasean, jardunaldi gutxiago direnez, partidu bakoitzak garrantzi handiagoa hartzen du. Asteburu honetan jokatu diren partiduen artean honako hauek nabarmenduko ditugu: larunbatean, Los Heredia - Arlutz eta Potroak Lotrategi - Nabarros neurketak, eta igandeko Argi Ibili - Tovarixtx eta Trikiti - Danok Lagun partiduak.**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Los Heredia 2 - Revolution Rock 5  
Arlutz 3 - Nabarros 2  
Franciscanerr 2 - Pepelus 3  
Zotz 4 - Potroak Lorategi 4

**CTALDEA**

Argi Ibili 8 - Arrasate Kirolak 4  
Tovarixtx 2 - Irati STS 5  
Motz 5 - Kakajauri 3  
Tronkoteak 2 - Suministros Ugarte 9

**B TALDEA**

Zulus 3 - Sokoakoak 2  
Mikelos 4 - Uglys Txinato 4  
Bukanak 5 - Jey Juliwer 2  
Anbotoste KT 2 - Fosforos 7

**DTALDEA**

Trikiti 8 - Arrasate Kristaldegia 5  
Danok Lagun 4 - Tutifruti 2  
Lenitz Garagardotegia 1 - Carbueros 2  
AC Surcos 3 - Zuloak 4



**Parques y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 12**

**Zaldibar**

- 08.50 Franciscanerr - Zotz
- 10.00 Zuloak - Tuttifrutti
- 11.00 Suministros Ugarte - Irati STS
- 12.00 Los Heredia - Arlutz
- 13.00 Potroak Lorategi - Nabarros
- 14.00 Bukanak - Anbotoste KT
- 15.00 Motz - Tronkoteak
- 16.00 Jey Juliwer - Sokoakoak
- 17.00 Zulus - Mikelos
- 18.00 Carbueros - Arrasate Kristaldegia
- 19.00 Fosforos - Uglys Txinato

**Igandea 13**

**Zaldibar**

- 08.50 Kakajauri - Arrasate Kirolak
- 10.00 Argi Ibili - Tovarixtx
- 11.00 Trikiti - Danok Lagun
- 12.00 Pepelus - Revolution Rock
- 13.00 Lenitz Garagardotegia - AC Surcos



## Mundialean bezala, espektakuluaren bila

**Zaldibarko** txapelketako antolatzailleek espektakularitate apur bat eman nahi izan diote bigarren faseari, eta FIFAk Estatu Batuetako Mundialerako egin duen bezala, hemen ere arau berriak ezarri dituzte. Horietako bat, faltetan barrera atzerago jartzeko neurria dago: lehen hiru pausutara zen, eta orain bostera izango da. Neurri honekin futbol erasokorrari protagonismo apur bat eman nahi zaio.

Beste arau berri batzuk ere jarri dira indarrean. Adibidez, baloia eskatzea falta izango da. Despistatzeko taktika izaten da hau askotan, eta beraz, moztea erabaki dute antola-

tzaileek. Salbuespen bat aplikatuko da: izena esanda soilik permitituko da baloia eskatzea. Bestetik, gurata egindako eskuengatik, bi minutuko espulstioa izango da (eta area barruan, penalti gainera).

Azkenik, arbitro talde batean bi jokalariek espulsatzen baditu, eta taldea atezainaz eta lau jokalarirekin geratzen bada, orduantxe amaitutzat emango du partidua arbitroak.

Oraindik erabaki gabe dagoena, aldiz, azken fasearen sistema da. Gaurko lau taldeetatik bi sailkatuko dira hurrengo fasera, baina ez dakigu oraindik azken txanpa hori kanporaketaz edo ligilaz jokatuko den.



**Iturripe kantxa biek ez dute gehiago Zaldibarko txapelketako partidurik ikusiko oraingo denboraldian, baina Uribe Auzoko partiduekin ere emozio une ugari bizi izango dira bertan, seguruenik. Guk bertako partiduen berri emango dugu zintzo-zintzo orrialde hauetatik.**

I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

**Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11**

**Deba Garaia Inmobiliaria**

**Inmueble eta finantza  
agentzia**

**Maalako Arrabala, 31 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 02**

**ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK**

**77 08 15**

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**



**LABURRAK**

**Eskubaloia**

Azken jardunaldian jakingo du Arrasate Kirolakek ea igoera faserako sailkatzen den ala ez. Ormaiztegin 20-21 galdu zuten, luzez aurretik joan ostean. Bere aurkari nagusiek (Bergarak eta Pasaia) elkarren aurka zuten, eta Bergarak irabazi zuen. Orain, Arrasate - Pasaia partiduan argituko da dena (igandean, Iturripen 10.00): irabazleak aurrera segitzeko aukera izango du, maila territorialetik salto emateko.

**Saskibaloia**

Igandean sekulako garai-pena lortu zuen Arrasatek igoera fasean, Atletico San Sebastian talde indartsuaren aurka (85-81). Lidergoa indartu du Arrasatek, partidu parekatu eta gogor horri esker. Orain beste aurkari latz bat dute aurrean: Askatuak. Donostiarrak ez dira ondoegi ari, eta Anoetan larunbatean irabazi gero, etsai bat eliminatuko luke Arrasatek, bere aukerak indartzeaz batera.

**Rugbya**

Euskal 2. mailatik igotzeko fasea hasiko du Arrasatek larunbatean (Garagartza, 16.30) Kakarraldoren aurka. Joan-etorriko kanporaketa da, eta oso talde gogorra da Kakarraldo, iazko denboraldiko "etsai" ezagunak. Plentziarren aurkako partiduetan, sarri puntu gehiago izaten da gorputzetan markagailuan baino. Taldeak publikoaren babesa beharko du beraz.



Nedzad Zavijevic bosniarra Jose Luis Ezkurra Mondrako lehendakariaren ondoan.

**Zavijevic izango da Mondraren hurrengo entrenatzailea**

**Datorren** denboraldian Mondra futbol taldeak entrenatzaile berria izango du: Nedzad Zavijevic bosniarra. Iñaki Zeziagak, aspalditik nahi zuen bere entrenatzaile postua utzi, eta hala esan zion zuzendaritzari.

Direktibak, zenbait kontaktu egin ondoren, Nedzad-enganajo du, eta bosniarrak onartu egin du. Aste honetan bertan formaldu dute datorren denboraldirako konpromezua.

Denboraldia amaitu arte, Zeziagak normaltasunez gidatuko du taldea, eta, beraz, bi urte beteko ditu Mondraren kirol zuzendaritzan. Aldaketa honetan ez du batere zerikusirik Mondraren ibilbideak. Gogor hasi zuten denboraldia, baina gero

joko irregularragoa izan dute. Dena den, Dibinok Mondra entrenatzea onartu zuenean, epe labur baterako izango zela jakinarazi zuen, eta orain bere desio hura bete egingo du.

Nedzad Zavijevicek 38 urte dauzka, eta Gorazde hiri bosniarrekoa da. Serbiarrek setiatuta daukate hiri hau Bosniako gerran. Zavijevic Eskoriatzako errefuxiatu taldearekin dago gure artean, 1992ko abendutik, bere emazte eta bi seme-alabekin. Eskoriatzan dagoenetik, Mondrako oinarritzako kade te eta hurren talde batzuk entrenatu ditu, eta gaztelaniaz ederto ikasi du. Euskaraz zailxoagoa gertatu zaio oraingoz, eta bere izenaren zailtasunak direla eta, klu-

bean "Netza" esaten diote, besterik gabe.

Taldeak planteatutako baldintzak onartu ditu Zavijevicek. "Ezin dut gauza askorik agindu, baina lana bai", adierazi zigun bosniarrak. Klubak ere ez du emaitza maila konkreturik eskatu entrenatzaile berriari. Datorren denboraldiko helburu nagusia 3. mailari eustea izango da, eta ahal dela, goian egotea.

Jugoslavia ohiko futbol leko diziplinara dago ohituta Zavijevic, eta hemen ere horixe aplikatuko du. Kirolaria zenean, Sarajevo taldean jokatu zuen, liga jugoslaviarrereko lehen maila. Entrenatzaile gisa, Mazedonia errepublikako lehen mailako talde bat ere gidatu zuen.

**LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

**ESTETIKA KLINIKA**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.**

**Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala





Arrasateko talde antimilitaristako bi intsumiso: Mikel Beitia tribunalearrekonozitu ez duena eta Josu Galdos martxoaren 29an epaituko dutena.

# Intsumiso arrasatearren epaiketak Justiziaren ordua?

Luis Fernandez

**Denon ahotan dugu: intsumisioa, eta intsumisioen aurkako epaiketak. Gaur egunean, arruntagoa da gazteen artean soldadutzari uko egitea, militarren artean urtebete pasatzera joatea baino. Baina estatuarentzat delitua da hori, eta epaiketen aroan sartu berri gara Gipuzkoan. Arrasaten 80 bat intsumiso daude, eta horietako bi lehenen epaiketak aste honetan izan dira Donostian.**

Azken hilabeteetan zehar Nafarroan egin izan dituzte intsumisioen aurkako epaiketa masiboak, baina Gipuzkoan ez da, kasu bakan batzuetatik kanpo, epaiketa askorik egin orain arte. Udaberri honetan, ostera, herri guztietako makina bat gazte igaro beharko dira tribunaletatik, eta sententziak uste bezalakoak badira, espetxetik ere bai agian. Hori guztia, gure gizartearen inork gutxik delitutzat jotzen duen "erru" bategatik: soldadutzara joan nahi ez izateagatik.

Asteazkenean, Jon Gomez epaitu zuten Donostian. Arra-

sateko lehena izan da. Oste-gunean, Mikel Beitiaren txanda iritsi zen. Mikelek ez du tribunalearrekonozitu, eta abokatuaren bidez idazki bat entregatu zuen epaitegian. Momentu horretatik, automatikoki, atxilotzeko moduko egoeran geratu da, "busca y captura" agindupean.

Martxoaren 29an, Josu Galdosen epaiketa izango da; apirilean, Igor Uribealgorena; maiatzean, Ander Santiagorena; ekainean, Iñigo Irusegirena... Aretxabaletako beste makina batekin, berdin: aste honetan, Felix Iñurrategi mendizalea eta Andoni Urze-

lai, ATBko langilea, epaitu dituzte.

## ESPETXERA BIDEAN

Bi multzo nagusitan bana ditzakegu intsumisioen kasuak: soldadutzari uko egin diotenak, eta kontzientzia-eragozleei derrigor inposatutako Ordezko Zerbitzu Sozialari (OZS) uko egin diotenak. Lehen kasuan, normalean (ez beti) 18 hilabeteko kartzela eskatzen dute fiskalek; bigarrenean, 2 urte, 4 hilabete eta egun bat.

Epaietan seguruenik zigor berberak emango dituzte tribunalek. Intsumisioek ez dute



horretan esperantzarik: epaiketek oinarri politikoa dutena ez du inork zalantzan jartzen; eta, beraz, tribunala errekonozitu ez eta epaiketara joaten ez direnen egoera, besteen parekoa da.

18 hilabeteko zigorrarekin, posible da espetxera joan beharrik ez izatea, baina bi urtetik gorakoarekin ez. Kasu horretan, azken garaiotan, espetxeratu eta gutxira, agintariek 3. gradua ezartzen diete intsumisoei: kartzelara lotara itzuli behar dute, baina egunez "aske" daude. Nafarroan aplikatzen dute hau, helburu jakin batekin: gatazka baretzea, eta espetxeak ahal delarik ez saturatzea. Baina intsumisoei beste jarrera batekin erantzun diote: 3. graduari plantoa eginaz.

Planto horretarako, autoinkulpatuak bilatzen dituzte, gaeuz etxean hartzen dituzten pertsonaia esanguratsuak. Gero, toki publikoetan azalduz, berriro atxilotu ditzaten aurpegi eman dute intsumisoei, eta ondorioz, berriro atxilotu eta espetxeratu egiten dituzte, inolako onurarik gabe oraingoan. Egoera horretan daude, gaur egunean, Nafarroako 115 intsumiso presoetatik 42. Horiarik bat, Ander Goñi, Basaurin giltzaperatuta dago eta hemen bizi zen ertzainek atxilotu zuten arte: Arrasaten ikasi (injinerutza, Politeknikoan) eta lan (LKSn) egiten du.

Gipuzkoan, beste gauza bitxi bat ere gertatzen da: 11 intsumiso daude "busca y captura" egoeran, baina ez dituzte atxilotzen. Agerpen publikoak egin dituzte, epaitegi batean bertan ere eman dute prentsaurrekoa, baina ez dituzte harrapatzen. Nonbait, agintariek banan-banan atxilotu nahi dituzte, edo, bestela, zer egin ez dakiten seinale izan liteke.

Intsumisoei badakite zer egin behar den: soldadutza ezabatu. Gobernuak nahikoa

# A

**rrasate eta Aretxabaletako intsumisoak babestuz, pertsonaia ezagunak azaldu dira lekuko gisa epaiketetara.**

buruhauste darabil dagoeneko, baina agintetik proposatu izan dituzten irtenbideak ez dira ezer konpontzeko, antimilitaristen ustez. Batetik, OZS gogortu egingo dutela aipatu izan da, soldadutzara jende gehiago joan dadin. Bestetik, espetxeak intsumisoz bete barik, lanpostu publikoetatik kanpo uztearekin zigortuko dituztela; baina neurri horren oinarri legala

zalantzakoa izan daiteke. OZS egiteko toki gehiago jarriko omen dituzte, baina Euskal Herrian ia erakunde guztiek uko egiten diote horri: ia ia Gurutze Gorria da eragozleak onartzen dituen talde bakarra. Eta Gurutze Gorrira deitzen dituzten askok, uko egiten diote joateari.

## ELKARTASUN ZEINUAK


Gipuzkoan 900 intsumiso

inguru daude gaur egunean. Horiarik 75 epaituko dituzte martxoan. Baina euren alde dago gizartearen gehiengo, duda barik. Aste honetako epaiketetan, Iñurrategi atxalbarrak Antxon Perez de Calleja, Joxe Ramon Zubizarreta, Jon Sarasua eta Arantza Loidi eroan ditu lekuko gisa eta Perez de Callejari soilik utzi diote hitz egiten. Andoni Urzelai, besteak bes-


## Aste honetan epaituak




Jon Gomez



Mikel Beitia



Felix Iñurrategi



Andoni Urzelai

# Mozioa

Antimilitaristen bost puntuko mozioak ia kasualitatez egin zuen aurrera, baina onartuta geratu zen. Izan ere, aldeko 10 boto izan zituen (HB, EA eta EUErenak) eta aurkako beste 10 (PSE-EE eta EAJrenak), baina kontuan hartzekoa da zinegotzi sozialista bat falta zela. Berdinketa horretan, alkatearen kalitatezko botoak erabaki zuen. EAJK antzerako mozio bat aur-

keztu zuen, baina soldadutzara joan nahi dutenen eskubideak gordetzeko ere eskatzen zen hartan. Onartutako mozioak lau puntu ditu:

- Alkatea eta Arrasateko Udalbatza herriko intsumisoen aurkako epaiketetan defentsaren lekuko bezala ager daitezela.
- Epaiketen kostuak Udalteak bere gain har ditzala.

- Espetxeratutako intsumiso guztiak aske utzi ditzatela eta Justizia Ministeritzaren aurrean epaiketa hauek direla eta, salaketa bat agertzea.
- Ejerzitoari gehiago ez laguntzea eta gazteen izen-hartzeari uko egitea.
- Ordezko Zerbitzu Sozialeko postuak ez ditzatela onar eta beraiekin zerikusitu duten instituzioekin harremanik ez edukitzea.



te, Leintz bailarako ordezkari sindikalen babesaz azaldu zen. Jon Gomez arrasatearra, Xabier Zubizarreta alkatearekin eta Antton Mendizabal EHUko irakaslearekin. Lekuko askori hitz egiten ere ez diete uzten epaileek, baina beren presentzia nahiko adierazgarria da, eta intsumisoeek eskertu egiten dute, adierazten duen babesagatik eta propagandarako laguntzen duelako.

Ez dira pertsonaia ezagunak intsumisoeekin bat egin duten bakarrak. Arrasaten protesta eguna izan zen ikastetxeetan asteazkenean. Aretxabaletan, intsumisioen ama eta emakume talde bat elkartu da epaituen alde, eta Arrasaten antimilitaristen deia erantzunez plataforma bat eratu da, hainbat elkarterekin (tartean ARKOko langileak). Plataforma honek manifestu bat kaleratu du, epaiketak geldiaraztea, presoak askatzea eta soldadutza ezabatzea eskatuz. "Intsumisioen borroka gizarteko zutabe erreakzionarioenaren kontra doa, eta erronka gogorra dute", adierazi zuen Arrate Landak Plataforma honen aurkespenean, astelehenean. "Helburua laguntzea da, eta pentsatzen dugu aurrerago gehiago busti beharko dugula intsumisioen alde".

**ZINEGOTZIEN SEDIZIOA**

Udala ere intsumisioen alde azaldu da, Korporazioak onartu egin baitzuen (doi-doi izan arren) antimilitaristek joan den ostiraleko plenora aurkeztutako mozioa. Ondorioz, udalak ordaindu egingo ditu Arrasateko intsumisioen



Intsumisoeek aurkeztutako mozioak doi-doi egin zuen aurrera azkenengo plenon.

**S**  
**edizio**  
**akusaziopean**  
**epaitu ditzakete**  
**Arrasateko**  
**zinegotziak,**  
**mozioa**  
**onartzeagatik.**

epaiketen kostak. Bestetik, udalak ez du gehiago armada-rekin kolaboratuko, alista-mendu, proroga eta antzerako prozeduretan; eta OZSn laguntzen duten elkarrekin ere harremanak eten egingo ditu.

Beste herri batzuetan aspalditik ari dira armadarekin kolaborazio hori ukatzen, esate baterako, Bermeon. Bertan, Gobernu Zibilak errekurrituta dauka erabakia, eta tribunalek auziperatu egin ditu horren alde bozkatu zuten zinegotziak, EAKo alkatea barne. Sedizio akusaziopean daude Bermeoko ordezkari politikoak, eta 12 urteko gartzela zigorra eta erabateko desgaitasun politiko eskatzen

du fiskalak euren kontra. Legez, Arrasaten ere gauza bera gerta liteke.

Beraz, nonbait, legea hausten duten gaizkilez bizi gara inguratuta: intsumiso, autoinkulpatu eta zinegotziak. Absurdo honi erantzuteko, elkartasuna da intsumisoeek eskatzen dutena.

Eta helburu horretarako, lehenengo eta behin, Arrasateko 80 intsumisioen artean, jende gehiago inplika dadin nahi dute talde antimilitaristakoe, gaur egunean 10 bat lagun artean egiten baitute guztia. Gazte bulegoan egoten dira, eta Plataformarekin bat egiteko ere bertara jotzeko eskatzen dute. Ez da alferrik izango.

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tfnoa: 77 13 78

**PEUGEOT - TALBOT**  
 Salmenta eta zerbitzua  
**IBABE GARAJEA**  
**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
 Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**Altzariak**  
**Diseinua**  
**Apainketa**  
**M ARENAZA**  
 Bizkai, 1 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 79 08 07



● *Josu Galdos*

# Epaiketari aurre egiteko gertu

**Josu Galdos da aurtengo udaberrian epaituko duten Arrasateko gazteetako bat. 27 urte dauzka, Arrasateko talde antimilitaristako partaidea da, eta Dragoi Bideoak produktoran egiten du lan. Martxoaren 29an epaituko dute Donostian, eta fiskalak bi urte, lau hilabete eta egun bat eskatzen du bere aurka, soldadutzari uko egiteagatik.**

— Ze animorekin egiten diozu aurre epaiketari?

— Animo handiarekin. Beharrezkoa da animoa. Aukera hau hartu genuenean, bagenekien ze kontsekuentzia izan behar zuen, eta animo osoz goaz. Nik bi lekuko dauzkat aukeratuta, ez dakit gero gehiago joango diren, baina oraingoz bat nire anaia izan behar da: soldadutza eginda dauka, eta abokatuak esan zidan horrelako pertsona bat komenigarria zela, soldadutza eginda daukan norbait, ez duena esperientzia onik eduki. Bestea Jon Garai izan behar da, udaleko kultura teknikaria, nire koadrilakoa da, eta kultura mailan zeozer esateko ere badauka.

— Estatua estu dabil, baina gogor ari da jotzen. Belloch ministroak ere zigor administratiboak aipatu ditu duela gutxi, intsumisoei ez zaiela lanpostu edo onura publikorik permitituko.


— Eskuetatik ihes egiten die asuntoak, eta erremedio-  
ren baten bila dabilta, baina ez da erremedio onik izango. Bellochenari buruz, Nafarroa aldetik, abokatu batek esan du hori inkonstituzionala izan litekeela. Nik ez dakit, baina Euskadi mailan ez dut uste hemengo erakundeek hori onartuko dutenik. Hemen badaude batzuk, funtzionario eta intsumiso direnak.

— Apoi handia sentitzen duzu inguruan?

— Nire inguruan bai, nire etxean eta nire lagunak, denak daude gurekin. Pentsatzen dut gauzak gogorrago jartzen direnean, gehiago igerriko dugula apoioa. Nahiko garbi dago, Euskal Herrian behintzat, giroa geurekin dagoela.

— Mozioaren onarpena nola baloratzen duzu?

— Nahiko positiboa da. Intsumiso deklaratu den udal-  
letxe bat edukitzea nahiko



ondo dago. Gipuzkoan, gainera, gutxienetakoa da eta horrek esan nahi du Arrasate gurekin dagoela.

— Zure jarrera, soldadutzari uko egitea, politikoa, etikoa, edo, besterik gabe, bizitzako urtebete ez galtzearren hartutakoa da?

— Ez dakit. Politikoa, ez. Nahiz eta ni Extremadurakoa izan, berdin egingo nintzateke intsumiso, uste dut. Ez dut pentsatzen hortik doanik asuntua. Etikoa, bai: ni ez nago ados sistema honekin. Ez dakit zertarako behar diren militarrek. Ez daukate funtzio sozialik. Ez dut uste armak direnik irtenbidea gauzak konpontzeko. Eta urtebete galtzea dela, bai, eta gaizki galduta gainera, ez dauka

inongo benefiziorik pertsonarentzat.

— Espetxeratzeko ordua iristen bada, 3. graduari uko egiteko eta kartzelara sartzeko prest zaude?

— Extremo hori ailegatzen bada, azkeneraino joan beharko dugu, nik eta denok, uste dut. Hori ez da bakoitzaren aukera bakarrik, taldeko aukera da, eta oraingoz argi daukat. Momentua heltzen denean, ez dakit, baina uste dut baietz: jendea eta mundu guztia gurekin dago, eta horrek nahiko animatzen gaitu hori egiteko.

— Soldadutzara joateko lehen deia jaso duen 17-18 urteko mutil bati zer esango zenioke?

— Bakoitzak aztertu behar du bere egoera, baina nik animatu egingo nuke jendea. Segun eta ze pentsamendu eta ze egoera daukan, ba intsumiso edo objetore egitea, bakoitzak ikusi behar du. Baina animatu, bai.

● **“Kartzelara sartzeko momentua ailegatzen bada, azkeneraino joan beharko dugu, nik eta denok, uste dut”**





Ospital Zaharra, 1955-56

**M**ertzedarien ikastetxeak dira zuriz jantzitako neskatila hauek. Ospital Zaharreko kalistroetan ateratako erretratoa da, eskola bertan zegoeneko, eta urtea 1955-56 inguru mai-

la bat baino gehiagotako ikasleak. Argazkiaren egoera txarra tarteko, bertan ageri diren neska batzuk ere ez dakite beste batzuk nortzu diren. Zuetako norbaitek ezagutuko dituelakoan argitaratuko dugu.

Behean, makurtuta edo eserita ezkerretik hasita: **Maria Jesus Pie de hierro,**

**Maribel Guerrero, Lourdes Águirreurreta, Mariatxen Etxeberria, Mari Carmen Barrutia, Esther del Valle, Ana Mari Mo-  
neo, Henar Fuentes, Mariatxen Heriz, Begoña Paga-  
ldai eta Pilar Uribetxe-  
berria.**

Zutik ezkerretik hasita, ezezaguna, Begoña Uriar-

**te, Mari Karmen Beitia, Milagros Elorza, Marilu Etxabe, Mertxe Zubiate, ezezaguna, Arantxa Amozarrain, Mertxe Yarza, Maritxu Muñoa, ezezaguna, Maribel Otxandiano, Maritxu Biteri, Itziar Lamarain, Angeli-  
ta Uribetxebarria, Ma-  
riangeles Idigoras.**

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE




# ZER NAHIAGO?

## Benito Igartua

### Arraultza saltzailea

- Nondik ekartzen dituzu arraultzak? Bergarandut baserria eta bertatik.
- Zenbat oilo dituzu? 22.000 oilo.
- Zenbat arraultza saltzen duzu egunean? 16.000 inguru.
- Zein da zure laugarren abizena? Zangitu.
- Sukaldari ona zara? Ez.
- Zein bazkari ez duzu gustoko? Uf! Denak gustatzen zaizkit.
- Zerk beldurtzen zaitu? Beharbada urak, itsasoak.
- Mendia ala hondartza? Mendia.
- Herria edo hiria? Baserria.
- Zure lana gustoko duzu? Bai, oso gustoko.
- Inoiz apurtu duzu hezurren bat? Zorionez, ez.
- ETB1 edo ETB2? Katai biak ikusten ditut.
- Futbola edo saskibaloia? Futbola.
- Kirolari mirestuena? Indurain eta Alkiza.
- Kirolik egiten duzu? Orain ez, lehen pilota.
- Zenbat balio du arraultza batek? 10-12 pezeta.
- Euskaraz edo erdaraz moldatzen zara hobeto? Euskaraz.



## BERTSOAK

### Berogailua

Berogaloak etxe bizitzan beti uda eta negu, mesede asko eginik ere traba ere egiten du; uda garaia datorrenean guk beti ohi degu kendu; aparte nunbait beretzat aña toki beti izaten du.

San Juanetan goian zeundenez oraindik jaisteke bera, aurtengo urteak ez dizu eman geiegi opor aukera; gerozti inoiz egun batzutan berotik aseak gera; orain San Simon baño lenago berriro goian altzera?

**JOXE MANUEL ARRIOLA**

# Diapositiba emanaldia


## Naiara Ezeiza

### Euskal Espedizioa

# CHO-93 OYU

Martxoak 12, larunbata Arratsaldeko 7etan  
Monterrongo Hitzaldi Aretoan  
*Anima saitez, eta elorri.*

**AED-GAZTE MOBIDIE**



# 3 HANDIXEK EGUNETAN

## APIRILAK 7,8,9

IZEN EMATEA: AED (77 12 28 / 79 54 46)  
NOIZ: MARTXOAK 25 BAINO LEHEN  
PREZIOA: 3.000 PTA





# Iñaki Riviere, margolaria

**“Nere margoak Arrasaten saltzea oso zaila da”**

**Iñaki Riviereren estiloa “Errealista” dela diote. Dagoeneko saldu ditu zenbait margo eta etorkizun ona iragartzen diote irakasleek. Martxoaren 11tik 27ra, bere lanak ikusgai izango dira Harresi Aretoan.**


— Arte Ederretan ez dela gehiegi ikasten esaten dute. Egia da?

— Nik sekulako disgustoa hartu nuen lehenengo mailan, oso dezepzio handia. Modeloak margotzen, gauzei kolorea ematen erakutsi behar zidatela uste nuen, hau da, barruan nuen “margolari” hori kanpora atera eta hobetu egin behar zutela uste nuen, eta ez zen horrela izan.

— Nola ikasi duzu, beraz?

— Nire ikaskideen lanak obserbatuz, fakultateko ikasgela guztiak goitik behera miatuz eta nire lan propioak nire kabuz eta esfortzuaz hobetuz. Besteen lanak begiratzaz asko ikasten da. Horretaz gain, asko margotu behar da, baina horrek ez du esan nahi, asko pintatzen duen bat derrigorrez ona izango denik, hau da, ni sekula ez naiz izango Maradona bezain ona, nahiz eta egun osoa entrenatzen pasatu.

— Norbaiten influentzia-



rik izan duzu?

— Bai, aurten irakasle baten laguntza berezia somatu dut. Alfonso Gortazar du izena eta margolari ezagun bat da. Horrek “pikatu” egiten dit, hau da, nire burua superatzen laguntzen dit, “ez zaitez hemen estankatu”, “egizu hau”... orainarte nuen perspektiba zabaltzen lagundu dit. Orainarte egin ditudan margoek, Bergarako margolari baten influentzia zuten, Jesus Mari Lazkanoren influentzia hain zuzen. Bere estiloak eragin handia izan du nigan, nahiz eta bera erromantikoagoa izan. Nire

•••••

**“Begarako Lazkano margolariaren lanak eragin handia izan du nigan”**

koadroak tenebristagoak dira, ilunagoak.

— Zerk inspiratzen zaitu margotzeko orduan?

— Orain margotzen dudan guztia, nik asmatutako margoak dira, esistitzen ez diren lekuak; paretak, hilerriak... baina nolabait benetakoak direla uste dut, nire barnetik ateratako irudiak direlako. Oso koadro ilunak eta handiak dira. Komeni da handiak izatea, norbaitek nire koadroa ikusten duenean, giroan murgil dadin.

— Saltzen dituzu zure koadroak?

— Bai, duela gutxi hasi naiz saltzen. Dena dela, merkatu hori ez da batere erraza.

— Zer du zuretzat Arrasaten erakusketa egiteak?

— Niretzat oso garrantzitsua da hau, beharrezkoa nuen nire obra erakustea eta katalogo bat ateratzea. Katalogoa irakasle batek idatzi dit, erakusketara joaten denak erreferentzia bat izan dezan. Dena den, hemen asko saltzen da arte garaikidea, baina ez horrenbeste errealista, nirea. Galartak asko saltzen du hemen baina Nueva York-era joango bahlitz ez luke ezer salduko. Nik badakit oso zaila dela hemen nireak saltzea, horregatik egiten dut erakusketa.

## LABURRAK

### Eski kanpainak martxan jarraitzen du

Aizu! Aurten ezin zera eskiatzera joan gabe geratu. Ez esan aukerarik izan ez duzunik edo eta zure egutegira egokitzen den datarik aurkitu ez duzunik. Gazte bulegoan, sekulako eski-irteerak dituzu zai aspalditik eta Aste Santu parterarte: egun bakarrek, asteburutakoak edo astebetekoak. Gainera, prezioak izugarri merkeak dira, zure poltsikora egokituak. Astun, Candanchú edo Formigaleko estazioak dituzu aukeran eta prezioak gastu guztiak kubritzen ditu. Zer; bururatzen zaizu aitzakirik? Lagun talde bat osatu eta joan zaitezte ondo pasatzera. Ez ezazu bi aldiz pentsatu. Animatu!

### Mural ikastaroa AEDn

AEDko Gazte Mobidiek, ikastaro bitxia antolatu du: mural ikastaroa hain zuzen. Irakaslea, Amaia Martiartu izango da eta larunbatetan goizeko 10etan izango dira klaseak. Ikastaro honek, 9 astetako iraupena izango du eta klase teorikoak eta praktikoak nahastuko dira. Irakasleek, Arrasateko hainbat paretetan muralak egiteko aukera izango dute, eta ATBrako dekoraturen bat ere egingo omen dute. Ikastaroa, martxoaren 12an hasiko da.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

**MENDIA**

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59



**PAZI-OLA**

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



# Zaragozako Udal Ballet Eskola, Arrasatera



Jon Aranbarrik lehen aldiz egingo du dantzan bere herritarren aurrean.

**Aspaldian** ez zuen Arrasatek ballet konpainien bisitarik jasotzen. Amaia antzokia itxita egon aurretik, Frantziako Ballet Gaztea eta Donostiako Konserbatorioko Ballet taldea pasa ziren herri-rik; bisita biak arrakastatsuek izan ziren. Geroztik, nahiz eta herrian ballet dantzari harrobi ona dagoen, ez da inolako piruetarik dantzatu Amaia antzokiko eszenatokian, eta ballet-zaleek, faltan botatzen zuten. Dena den, espero dezagun martxoaren 12ko bisita horrek jarraipena izatea!

Zaragoza betidanik izan da ballet dantzarien bilgunea. Bertan, Zaragozako Udal Ballet Eskola dago, 1984. urteko martxoaren 14an bertako alkatea Don Ramon Sainz de Varandak sortua Bertatik, estatu mailako dantzari apartak sortu dira.

## **CRISTINA MIÑANA: ZUZENDARIA**

Zaragozan jaioa. Maria de Avila, Dolin, Sevelin, Udaeta, Highbower eta Juroslav Berger izan ditu ballet irakasle. Solista, lehen dantzari eta

dantzari izar moduan, honako konpainietan egin du lan: Alfredo Alariaren konpainian, Bartzelonako Lizeoko Teatro Handian, Zurich-eko Operan, Lisboa-ko Gulbenkian konpainian eta Marsellako Operan. 1982. urtean, "Ballet Clásico de Zaragoza"ko konpainia profesionalaren zuzendari-ordetza eramaten hasi zen, eta ondoren 1989. urterarte, konpainiaren zuzendaritza. 1984. urtetik, ballet eskolako zuzendaria da. Zuzendaritzaz gain, koreografia lanak egiten ditu.

## **Arrasatear bat konpainian**

Ionek 29 urte ditu eta Arrasate Musikaleko ballet irakaslea da gaur egun. 16 urterekin hasi zituen Arrasate ballet ikasketak eta ondoren, Zaragozako Udal Ballet Eskolara joan zen ikasketak horiek jarraituz: Martxoaren 12an, Zaragozako konpainiarekin dantzatuko du Amaian "Aguas de primavera" binakako pausoa. Montpellieretik etorri berria da, J. B. Lullyren "Roland" operan dantzatuko ondoren. Ion, ez da inongo konpainiatako partaide, baina berak esaten duen bezala, "edozein produkzio suertatzen denean, aurkeztu egiten naiz parte hartzeko".

Bisita hau, Ion Aranbarri-ri sor diogula esan behar da. Bertako partaidea izan da eta bere interes eta kontaktuei esker, Zaragozako Udal Ballet Eskola Arrasatera ekar- tzea lortu du.

Programa bost koreografiak osatuko dute: Cristina Miñanaren "La fille mal gardée", "Suite Española" eta Ion Aranbarrik eta Natalia Tapiak interpretatzen duten "Aguas de Primavera". Bestalde, Maurice Petipáren "El Quijote famatua", A. Dolin-en "Pas de Quatre" eta Maurice Petipáren eta Cristina Miñanaren "La Bayadera". Dantzariak, 12 urtetik 18ra bitartekoak dira eta ikuskizuna ziurtatua dago. Martxoaren 12an, arratsaldeko 7etan izango da hori. Arrasate Musikaleko bazkideek, dohainik lortuko dute sarrera eta besteek, 500 PTA-tan Mendi taberman.

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



# Arrasateko Ikastetxea

• BAGARA, EZ GARA, GOAZEN IKASTETXE PUBLIKOETARA •

## • ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTOA •

Ikastetxe Publikoa  
1994-95 ikasturtea



MUSAKOLAKO INSTITUTUA

### IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso, UBI eta REM lehen maila  
Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

1. BBB: Frantsesa-Ingelesa
  2. BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, Diseinua, Informatika, Frantsesa
  3. BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
    - A. Zientzia Arloa
    - B. Letra Arloa
    - C. Zientzia-Letra Arloa
- U.B.I.: A. Zientzia-Teknologia Arloa  
B. Arlo Bio-Sanitarioa  
C. Giza Arloa  
D. Linguistika Arloa

### EZAUGARRI OROKORRAK:

- Inguruko Batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Orduetegi trinkoa: goizeko 8,30etatik arratsaldeko 3ak arte
- Eskolaz kanpoko ekintzak: Zinema, Antzerkia, Txangoak, Argazkilaritza, Kirolak: Saskibaloia, Igeriketa, Ski-astea...

### EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia, eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo-gelak, liburutegia.

**MATRIKULA**

**AURREINSKRIPZIO EPEA**

Maiatzean

Tfnoa: 79 44 47/ 37

**DOHAINIK**



# atetxe Publikoak

• HAURRAK HAUR, BEREIZKERIARIK GABE,  
HERRI ESKOLAN DUDARIK GABE•

• ARRASATEKO HERRI ESKOLAK •



SAN ANDRES

## ESKAITZEN DUGUNA:

Irakasteko Ereduek  
Inmertsioa  
D Eredua  
B Eredua

## IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza Berezia,  
Soinketa eta Musika.

## PEDAGOGIKOKI

Talde Multiprofesionala eta  
P.A.T. aholkuak

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Guraso Elkarteen laguntzarekin.

Multikirola, Zinemaldiak, Esku-lanak,  
Argazkigintza, eta bestelako ikastaroak.

**Tailerrak** ( Kontsumoa, Ingurugiroa,  
Drogomenpekotasuna, Sexualitatea,  
Aisia, Goxoki tailerra...)

## BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta Garraioa

Laborategia eta Liburutegia



MUSAKOLA



ERGUIN

**INFORMAZIOA OSATU  
NAHI BADUZU,  
DEI EGIN EZAZU:**


- Erguin: 79 77 74
- S. Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



• AIPUA •

*Beldurra beti ezjakintasunetik etortzen da.*  
EMERSON

• JEROGLIFIKOA •



Musean

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12				13			
14			15			16	
17		18		19	20		
21							

J. B. AGORRIA

**Horizontala** 1. Txomin, AEDren lehen lehendakaria. 9. Galizian jaioa dena. 10. Burdina erakartzen du. 11. (Ald.) Txanpon baten aldeetako bat. 12. Baieztatzeko hitza. 13. Koloka. 14. (Ald.) Litia. 15. Zeu. 16. (Ald.) Fisikan, Curieren ikurra. 17. Deitzearen egintza. 19. Nigerko mendiak. 21. Desberdin.

**Bertikalak** 1. Lanbide. 2. Zoritxarrez. 3. Pozik dagoena. 4. Oinaze. 5. Ukatzeko hitza. 6. Afrikako ibaia, munduko luzeena. 7. Ron zuriz eginiko koktela. 8. (Ald.) Italiako irla. 13. (Ald.) Fidel Castroren anaia. 18. (Ald.) Bat eta bat. 20. (Ald.) 501 erromatar erara.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Altxatu morala eta bota zure pena guztiak; zergatik zaude triste?

**Taurus** Zure azalaren kolorea ikusita moroa dirudizu.

**Gemini** "Kreida!" Ez ezazu esaten ditzuten dena sinetsi.

**Cancer** ...Noizean behin dutxa bat hartzea ere ez da gaizki etortzen.

**Leo** Kalean uso, etxean otso.

**Virgo** Maiteminduta zaudela antzema ten zaizu; baina norekin?

**Libra** Zer moduz bizi zara ilargian? Gu lurrean, tremendo!

**Scorpio** Atzetik jarraika zabilzan pertsona hori ez da oso zuzena.


**Sagitaris** Udan ongi pasatzeko hobe duzu espabilatzea.

**Capricorn** Munduan norbait izan nahi baduzu, zure idazkera aldatu beharko duzu.

**Aquarius** Oso ezkorra zara, gauza onetan ere pentsatu.

**Piscis** Ezkerreko belarriak min ematen badizu, jendea zutaz gaizki esaka dabilelako da.

**HAU DA ESPERO ZENUENA!!**



**FIAT PUNTO BERRIA!!**

•KANPAZAR GUATI

TAiLERRA: Bizkaia Etorbidea z/g. Tfnoa: 79 41 98  
ERAKUSKETA: Araba Etorbidea, 4. Tfnoa: 79 77 66



## • BEATRIZ GARAIEN GOMENDIOA •



Aste Santua badator, eta horrekin batera askok eta askok opporraldia buruan. Norabait joan nahi izanez gero pentsatzeko ordua ere heldu denez, aukera bat proposatu nahi digu Beatrizek. Iparraldera irteera egitea gomendatzen digu, "egun gutxi direnez, hurbil dago eta leku polit asko dago ikusteko, herri txikiak, eta Irati aldea adibidez". Hemengo jendeak Iparraldea ez duela ezagutzen iruditzen zaio, "eta Maskarada ere Aretxabaletan egon berri denez, aukera polita da hurbilketa egiteko". Eguraldiaren arabera egongo den arren, kanpinean ibiltzea gomendatzen du, "Iparraldeko kanpinak oso onak izaten dira eta".

## • PROGRAMAZIOA •



- 13 Igandea**  
20.00etan  
Astebete errep.  
20.30etan  
Mondragol
- 14 Astelehena**  
13.35etan  
"Kukaratxa Motel" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport  
22.00etan  
Filme Erraldoia: "Aingeruaren bihotza"
- 15 Asteartea**  
13.35etan  
Mondrasport errep.  
14.05etan  
"Aingeruaren bihotza" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan  
22.00etan  
"Txip aparta"
- 16 Asteazkena**  
13.35etan  
ATBketan errep.  
14.05etan  
"Txip aparta" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Tertulixan  
22.00etan  
Dokumentala: "Zer dira izarrak? Nola sortu zen bizia?"
- 17 Osteguna**  
13.30etan  
Berriak  
13.35etan  
Tertulixan errep.  
14.05etan  
Dokumentala errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Esther Larrañaga  
22.00etan  
Euskal Filmea: "Albaniako konkista"
- 18 Ostirala**  
13.35etan  
Bakarka errep.  
14.05etan  
"Albaniako konkista" errep.  
19.15etan  
"Kukaratxa Motel"  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Haurren eguna: "Fievel eta mundu berria"

## • KOMIKIA •



**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

## • SOLUZIOAK •

JEROGIFIKOA  
Enbido.  
DI  
Dakiti: 8, Capri, 13, Raul, 18, Bi, 20.  
3, Alai, 4, Min, 5, Ez, 6, Nilo, 7.  
Bertikalak: 1, Ogitide, 2, Tamalez,  
19, Air, 21, Ezberdin.  
Horizontalak: 1, Oramendi, 9, Gail-  
zlar, 10, Iman, 11, Pl, 12, Bat, 13,  
Loka, 14, 11, 15, Zu, 16, Ci, 17, Del.



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Maala** kalean. 75 m2tako. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Etxebizitzak salgai** Olarte kalean eta Bizkaia Etorbidean, 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Eguerdiarian).
- **Baserri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai.** Irekia(marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Eguedietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.
- **Bi lagun gara** eta apartamendu bat alokatu edo pisu bat konpartituko genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 36 14 50. Mikel. Dei egin 9,30etatik aurrera.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauzez deitu. Luis.

**Lana**

- **Esperientziadun** administratiba prest lan egiteko. Tfnoa: 79 69 41 (Julia).
- **Deba Garairako** PELUKERA eta ESTETIZISTA behar ditugu. Interesatuak bidali kurrikuluma. Salbatierribide, 32. 2.D. 01007 Gasteiz. J. Martinen izenean.
- **Injineruak** injineritza, marrazkia eta UBIko klaseak emango lituzke. Asteburuetan. Esperientzia. Tfnoa: 79 53 40. Mikel.
- **Ur, gas eta berogailu instalakuntzak** egiten dira. Tfnoa: 79 91 22. Pedro.
- **OHOko klaseak** emango nituzke. Tfnoa: 77 05 90. Nagore. Eguedri eta afalorduetan.
- **Neska bat** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 39 49.
- **OHO**n diplomatuak eta Euskal Filologian lizentziatuak, OHO eta euskara klaseak ematen ditu Eskoriatzan. Tfnoa: 71 40 39. Ana.
- **Enpresa lizentziatuak** Administrari gisa egingo luke lan, edo kontabilitate, matematika edo finantza matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Andra euskalduna,** etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 07 73.

**Salerosketak**

- **Roneon 23 m2ko garajea** salgai. Itxita. Goiko solairuan. Tfnoa: 77 08 02.
- **Donostiako eskualde** txartela salgai. Tfnoa: 79 03 15. Manuel.

- **Mountain-bike bizikleta** salgai. Otero Procha Shimano Deore DX markakoa. Berri berria, egoera ezinobean. Interesatuak dei egin 77 06 82 tfnora. 9etatik 11etara eta 5etatik 8etara. Gari.
- **Narruzko butaka** beltzak salgai. Estrenatu gabe eta prezio egokian. Tfnoa: 79 52 80.
- **Bibolina** jotzen ikasi nahi baduzu, nik daukat behar duzun bibolina. Berri-berria. Tfnoa: 79 08 79. Karol.

**Denetarik**

- **Portaloitik Zigarrolara** bidean, estreinatu gabeko painolo bat galdu dut etiketa eta guztiz. Mesedez, aurkitu baduzu, deitu 79 12 32 tfnora. Zabaleta. Eskertuko da.
- **"Ion Iraolaren" fan elkarte.** Bidali bi argazkiak helbide honetara: Ignazio Zuloaga kalea, 19 zbk. -14. Maite zaitugu.
- **Igande arratsaldean** San Viator eta Aterpe taberna bitartean, urrezko pultsera galdu nuen. Grabatu gabe dago. Saritu egingo da. Tfnoa: 79 66 92. 10etatik aurrera.
- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Urrezko pultsera** galdu nuen San Andresen ostiralean. Eskertuko da. Tfnoa: 79 07 69. Felisa.
- **Zilarrezko pultsera** aurkitu dut. Maribi izena darama eta San Valentin eguneko data azaltzen da. Zurea bada, dei egin 79 09 00 tfnora. Josefe.
- **Norbaitek oparituko** balit egongelarako alfonbra, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.

**Aste Gazte**

**Heldutasun frogak**

• LH I titulua librez esku-ratzeko frogak (klinika laguntzaile, administrazio laguntzaile...); baldintzak: 18 urte-tik gorakoa izan eta urtebeteko lan esperientzia (edozein lan motak balio du) izatea. Izena emateko epea: martxoaren 28tik apirilaren 14ra arte. Eibarko Armeria Eskolan.

**Lana**

• Gipuzkoako Diputazioak deitutako lanpostuak: kirol instalakuntzetarako erdi mai-

lako teknikari bat, mendietako injinari bat, lurralde informaziozko goi mailako teknikari bat, nekazaritza eta naturguneetako goi mailako teknikari bat, herrilanteko 3 injinari tekniko, 4 ekonomilari eta 3 delineante.

• Gasteizko Udalak honako lanpostu hauen deialdia egiten du: 33 administrari laguntzaile, 14 trafiko eta apar-kalekuen zaintzaile. Epea: martxoak 24.

• Barañaingo udalak (Nafarroa) lanpostu hauen deialdia egiten du: kultur teknikari

bat, euskara teknikari bat eta hiru administratibo elebidun.

**Bekak**

• Lurralde eta Hiri ikasketetarako Euskal Eskolak 8 ikerketa-beka ezberdinen deialdia egiten du. Epea: martxoak 16.

**Lehiaketak**

• XIX. Zeramika Lehiaketa Nazionala. Gaia: librea eta originala. Epea: martxoak 26.  
• Eibarko Udalak antolatuta, "Toribio Etxebarria" enpresa munduko ideien V. lehiaketa. Epea: martxoak 31.

**"Zein garrantzi izan zezakeen nere bizitza hondatu behar nueneko intentzio oneko abertimenduak bere gazte grinarako?"**

**ROSA REGAS (AZKENENGO NADAL SARIAREN IRABAZLEA), EL PAIS-EN**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



PROMOZIOA **FAGOR** 

%40ko beherapena  
Apirilaren 30era arte  
**BAKARRIK**



*Jose Aranxabal*

San Andres auzoa Tfnoa: 79 18 97



# Laguna



*Zure Laguna MECAn daukazu zain*

**ZATOK PROBATZERA**

*Laguna: ikustea, nahikoa gustatzeko*